

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea - Pamplona - Agosto 1967 - Agorrilla - Iruña - 18'gn zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



ZANGOZA (Sangüesa) ko BIGARREN «LORE YOKUAK» 1967

PREMIOS ORDINARIOS (temas en verso) OFRECIDOS POR EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE LA CIUDAD DE SANGÜESA

I.—Flor Natural al autor de la más bella composición poética de tema y metro libres, dotado con cuatro mil quinientas pesetas. El poeta premiado está inexcusablemente obligado a asistir a la Fiesta y tendrá el honor de ofrecer la Flor Natural a la Dama que sea proclamada REINA DE LOS JUEGOS FLORALES.

II.—Rosa de Oro al autor de la poesía de tema religioso o moral, de tema y metro libres; dotado con dos mil pesetas.

III.—Rosa de Plata al autor de la poesía de carácter navarro-patriótico, de tema y metro libres; dotado con mil quinientas pesetas.

Los trofeos de Rosa de Oro y Rosa de Plata han sido gentilmente donados por «Joyerías Rubio», de Pamplona.

PREMIOS EXTRAORDINARIOS (Temas en prosa)

I.—Del Excmo. y Rvdmo. Dr. D. Francisco Delgado Gómez, Arzobispo de Pamplona, tres mil pesetas. Tema: «Alguna de las dedicaciones o devociones marianas en la Merindad de Sangüesa».

II.—De la Excmo. Diputación Foral de Navarra, veinte mil pesetas. Tema: «Contribución de Navarra a la Literatura Española».

III.—De la Excmo. Diputación Foral de Alava, diez mil pesetas. Tema: «La región como base de la unidad española».

IV.—De la Excmo. Diputación de Guipúzcoa, diez mil pesetas. Tema: «Ventajas de la descentralización para un mayor progreso de España».

V.—De la Excmo. Diputación de Vizcaya, diez mil pesetas. Tema: «Aportación de Vizcaya a la unidad nacional».

VI.—De la Jefatura Provincial del Movimiento, cinco mil pesetas. Tema: «El paisaje y el hombre en Navarra».

VII.—De la Delegación Provincial de Información y Turismo, cinco mil pesetas. Tema: «Huella artística de la Ruta Jacobea en la arquitectura de la Merindad de Sangüesa».

VIII.—Del Ilustre Colegio Notarial de Pamplona, cuatro mil pesetas. Tema: «Estudio de algún problema de Derecho Privado Foral Navarro».

IX.—De la Caja de Ahorros de Navarra, cinco mil pesetas. Tema: «El Ahorro como función social».

X.—De Don Angel Sánchez-Valverde y Lacorte, intelectual muy vinculado a Sangüesa, tres mil pesetas. Tema: «Cuento infantil para mentalidades inferiores a diez años». El tema será libre con o sin ilustraciones.

XI.—De la Almazara Cooperativa «Nuestra Señora de Rocamador», Cofradía de San Isidro Labrador, Agrupación Sindical, Caja Rural Católica y Hermandad de Labradores y Ganaderos, dos mil quinientas pesetas. Tema: «Ventajas del Cooperativismo en la Agricultura».

Accésit sobre el mismo tema, dotado con mil pesetas, y concedido por la Caja de Ahorros Municipal de Pamplona.

EUSKERAZKO SARIAK (PREMIOAK)

I.—Iruñeko «Euskal Yakitea»-ren Akademiarena, iru milla pezetakoa. GAIA: Olerkia, edo Poesia, euskal metrika jatorraz eratu eta edozein euskerazko izkeraz idatzia.

Milla pezetako Sariendoko, edo Acesit, Iruñeko «Caja de Ahorros» delakoak emana.

II.—Erronkariko Ballearen Batzarrearena, iru milla pezetakoa.

GAIA: Olerkia, aukeran, Erronkaritar mintzaeraz izkiriaturia.

III.—Franzi aldeko Nafarroko Dona Paleuko Uriarena (Saint Palais erderaz), milla pezetakoa.

GAIA: Olerkia, euskeraz, franseseraz, ala gazteleraz izkiriaturia, eta Iparraldeko Nafarroari eskeindua.

CONDICIONES DEL CERTAMEN

1.ª Todos los trabajos deberán ser originales e inéditos, escritos a máquina en cuartillas o folios por una sola de sus caras y por ejemplares duplicados.

2.ª Se presentarán sin firma ni indicación alguna de su autor; constará claramente el Tema a que concurre y el Lema que lo distingue. Se acompañará un sobre cerrado en cuyo exterior se indicará también el Tema y el Lema, y en su interior se repetirán éstos y se pondrá el nombre, apellidos y domicilio del autor.

3.ª El plazo de admisión de trabajos finalizará el día 31 de agosto, a las veinte horas. Se presentarán dirigidos al Vocal de la Comisión, Don Miguel Pérez Samaniego, Calle Mayor, número 37-2.º — Sangüesa (Navarra).

4.ª El fallo del Jurado que se designará por la Comisión se hará público por la Prensa y Emisoras de Radio que nos presten su colaboración, aparte de la comunicación directa que se enviará a los autores premiados con la suficiente antelación.


EUSKERAZKO SARIEN MAIPURUAK

JOSE ESTORNES LASA YAUNA, «AÑAMENDI» Argital-Etxeko Zuzendaria.

On Jose Maria Satrustegi Yaun Agurgarria, Euskal Akademikoa eta Nafarroko Diputazioaren «Euskeraren Alde»ko Taldekoa.

On Pedro Diez de Ulzurrun Etxarte Yauna, Nafarroko Diputazioaren «Euskeraren Alde»koa dena.

Eta Felipe Yurramendi Yauna, Donostiko Euskal-erdal Ikastetxeko (Es-kolategi) Zuzendaria.



OSKOTZ

Erri txikia. Bildurra ematen du esateak. Erri txikiak ustutzen ari dira. Pixkaka pizkaka ixiltzen dijoaz. Mendi aldeko aize goxo finak utzi ta usai gaiztoko lantegi beltzak nahi ditu jendeak.

ekarri; asko da aita etxeko guzien ogia eskuratzeko. Eta ezkondu neskatx gazteak baserrira; zuek amets egiteko denboran sartuko dira leiotik laguntzak.

Oskotz bizi da eta erakutsi du bere bizí nahia. Oskotz aunitz behar dira Eskualerrian.

Zorionak biotz biotzetik!

Ez. Oskotz bizi da. Erratekotan nago ez hiltzeko bidean sartua dugula. Irurtzundik gora, Imotz ballaran dago. Ez nintzan iñoiz izana. Izan ere bide nagusitik bazter egiten da.

Txoko polita. Ango berdearen samina!! Belar eta sasi, lizar eta iturri, kolore guziak egosten dira ango berde zoragarrian. Zartuta alde egin beharko dute txoriak: an ezin da iñor hil. Ez da itsaso geldiarene lo otza; osto bakoitzak badu bere itza, bere poza: aize fiñak ematen dion musuaren ikutua.

Baño ez da aizetik bizitzen jenderik. Oskotzdarrak badakite ori eta beste zerbait sortu dute. Lurra-ekin burrukan irabazten zuten ogia gogorra zen eta gazteak etzuten errian egon nahi. Emakumea gizonaren uztarriko lagun, sorotan usteltzeko ezin da izan. Lengo kontuak joanak dira eta etzegon beste biderik: elkartu ta bizi edo hil.

Berrehun arima bezik ez ditu erriak eta, bere txikian, gauza aundia egin digu: batasuna. Denen lurrak josi dituzte, ari batek egiten ez duen jostura denen artean egiteko. Koperatiba delako elkargoa egin eta irugarren urtean dijoa.

Hil dira, bai, hiltzeko obeak ziren lur muxurkatze eta aitzur lanak. Zalapartaka ari ziren burnizko bular aien sasoi!! Katillu bat esne emateko gauza etziren bei idorrek kendu ta, esne putzuak sortu dituzte errian.

Joan daizke gazteak eskola ikastera, eta lantegi berriak nunbaitik



LIBURU BERRIAK

"LUZAIDE'KO KANTIAK"



Gure txit lagun den On Jose Mari Satrustegi Apez Yaun Agurgarriak (onek nun eta nundik ateratzen duen denbora yakiteko zail zaigula!) beste liburu interesgarri bat apailatu du «Luzaide'ko Kan-

tiak» izena duena, eta agiri denez Luzaideko errian bildutako kantuak (kantiak) dira.

Gure «lankide» maite den Satrustegi ezin nekatuzko langille burutsu eta argia Luzaiden zenbait urtez egona zen erretor-lagunaren gisan. An etzuen minuturik galdu; bere apezgoari zegozkien lan guziak eta geiago ongi betetzen zituelarik, euskal yakintzari buruz nekagaitz eta trebe agertu zitzaigun, eta Luzaideko «atsa» osoki, arruntan artu eta nagusiturik, ango euskara jabetu zun tarrapatan, aisa eta erreki, eta au naikoa ez izanki, Luzaidar esaerak, esan zaharrak, antziñeko siñeste eta kantuak bildu zituen.

Orain bi urte baditu «Auspoa» LIBURUTEGIAK Satrustegi Yaunak eraturako «Bordel» Bertsularia izenezko liburua argitaratu zuela, eta orain berriro LIBURUTEGI berberak On Jose Mariaren beste liburu bat argitaratu berri du.

Ondoren Baiona'ko «HERRIA» asteroko famatuan agertu diran liburu oni buruzko idazlan baten aipamen batzuk ateratzen ditugu: «LUZAIDE'KO KANTIAK» emaiten dauzku 164 plametan eta 26 kapitulutan. Geienak Arnegin ere kantatzen, edo kantatu diren bertsuak dira. Liburu hunek ez dauzku kantuak utsik ezagut ezazten, baina ahalaz erraiten ere nor

izan diren egilleak, edo berdin suietak, edo nundik ukan dituen eta noiz nola. Ots, Luzaideko eta gure bazter auietako berri asko oroit erazten dauku...

Luzaide poliki goretsi-ta ona erriko lelo zaharrak, aurrenak, ezkonduenak, arnozalenak, eta Axeridantza. Gero eldu da «Lurraren pian» kantuaren istorioa. Segidan: «Ikustera jiten (etortzen) nizaizu». «Napoleon», «Preottoaren mutilla» «Urzo (Uxu) xuri polit bat», «Antton eta Maria», «Bankako lau andere», «Ondarrolako urzoa (uxua)», «Baigorriko urzoa».

Emen Satrustegi yaunak aipatzen dauku Bazil bertularia. Gero kantuak eldu dira berriz ere: «Luzaideko goraberak», «Azken Karrosa», «Hil piztua», «Luzaideko gazteria».

Bada beraz zer ikas liburu hortan.

Eta orixe berbera diogu guk, badugula zer ikasi Satrustegi yaunak egindako liburu ontan, eta beraren sasoi, aleginketaz eta kemenez ez daukagu esan beharrik.

Zorionak!, On Jose Maria eta jarraitu beti aintziñera gure Euskal erriari!

Liburua salgai dago, eta ez du geigizko baliorik, ogei t'amar pezera naski ez du besterik gostatuko, eta edozeiñek ain diru gutxitan erosi dezake.



ELIZAREN

ITZA

BATIKANO II BATZAR NAGUSIA

Kristau batasunari buruz

Bataioko sakramentuak, Jaunak jarri bezela ematen danean eta animako bear den prestaerakin artu, Kristo il eta piztuari itxastan dio gizona eta Jainkozko bizitz berbera berriz jaiotzen du, Apostoluaren itz oken arora» Bataioz ere Arekin eortzi eta berpiztu izanak zerate, Bera ilartetik berpiztu dunaren al izatea sinisturik» (KOL. 2, 12).

Bataioa, ortaz, Kristogan berriz jaiotzen diren guztiei batuta eusten dien lokarria da. Baño, berez, asiera bat bakarrik, txerto bat, Kristoren bizikera bete-betea animan garatzeko ipiñia, ots, bataiatuak oso-osorik fedea aitortu bear du, Kristok jarritako salbade guztiak onartu eta Eukaristi alkartasunean zearo murgildu ere bai.


Gure senide Protestanteak bataioak eskatzen dun batasun oso ori ez daukete gurekin, eta Apezgintzaren sakramentua galtearekin, Eukaristiko misterioaren muñari ez diote garbi ta osoki eutsi, alare, beren Apari Santuan Jaunaren eriotz eta piztea oroitzean, Kristoren komunioa bizitzaren señailea dala diote eta Kristoren itorrera dotsuaren zai daude. Orrengatik Jaunaren Apariaz, beste sakramentutaz, Elizaren jaiara eta serbitzutaz erakusten dutena, elkar-itxketetan aztertu bear dira.

Gure senide oken kristau-bizitzarentzat Kristoren fedea da bazka, bataioko grazia sendogarri, baita Jainkoaren itza entzutea. Nabari da au bakarkako otoiñtan, Bibliaren gogozko ausmarteaz, kristau sendiaren bizikera eta Jainkoa goresteko biltzen diren batzar alditan, otan, aunitz aldiz berexi aurreko liturgiaren atzarnak topoztatu litezke.

Jaungoikoakiko gorespen eta esker ona, zuzentasunaren gose eta egarria, lagun urkoarenganako egizko maitasuna sortzen dizkiote Kristoganako sinismenak; baita ere elkarte franko korputz eta animako ez-bearrak jasotzeko, gaztediaren ezitzeko, gizartearen laguntzarako, munduko pakearen iraupenerako. Gaurko eguneko zenbeit nasketetan, katolikoan jokabide berak ez artu arren, Kristoren itzari jarraitu nai diote, onbide guztien iturriari, Paulo Apostoluak dionez» Edozertan, itzez naiz egitez, ari zeratela, Jesu Kristoren izenean dana egizute, Aren bitartez Jaingo esker ona erakutsirik» (Kol. 3, 17).

Batikanoko II Batzar Nagusiak, batasuneko bideak erabaki ondoan, bere semeeri eskatzen die, lanbide ontan ariñ ez, oso zur, jokatu ditezela, Apostolu eta Eliz Gurasoak emandako egia eta Eliz Katolikoak arrataz gorde duna, zintzoki azalduzik denen onerako, aztu gabe goitiko izango dala ekiñik gartsuena, Kristo beraren, Eliz eta Elizaren Ama dan Maria doatsuaren otoiñtan eta Espiritu Santu Jaungoikoaren eragiñez.

ELKARTZEAREN INDARRA



—Ori bai; baño berek ikusiko dute. Ezin da iñor behartu (obligatu). Errateko baizik ezta, baño, asieran sartu etzen famili baten lurrak errentan artuak ditugu orai.

Eta oiek ezin dira sartu?

—Sartu, sartu... bai. Gertatzen dena beste gauza bat da: asieran lurrak sartzen ziren bakarrik, eta nahi zuenak aziendak ere sartu zezaketen. Baño gaur ume asko egin dute orduko gauzak. Asieran 30 bei eta 500 ardi baziren, laurogei azienda gorri baditugu orai; eta 1.100 ardi. Millon batetik gora balio dute gure abereak. Iru urtez, iru barne ideki ditugu okulutako. Tratore eta oruga, diru aunitz sartu dugu makinetan. Lagun berriak balio orren sari, sarrera ekarri beharko lukete.

—Etxeko beietatik dituzue ganadua oiek guziak?

—Ez. Patera edo kuerno, obere-nak saldu eta txarrenekin etorri ziren guregana. Saldu egin behar izan genituen. Nabarrak erosi eta aietatik ari gera aurrerako ateratzen. Ba ditugu amazapi, urtekoak; eta beste ainbeste biña urteko. Etxekoak dira obere-nak.

Balio zuen, bide medarrak ba dira ere, Oskotz ezagutzeak. Eskualerriak ba du, beren naia eta ondusunak elkartu dituzten anai oietatik zer ikasia. Oskotzek zuen problema Eskualerri osoarena bai da!

J. M. SATRUSTEGI

Oskotz, erri polita, Irurzun'dik Ultzama aldera dago. Berde ziren baztarrak eta atsaldea bero, gu aillatzean. Erriko apez jauna deitu eta berak eraman gaitu beitegira, berri jakingarrien sokatik. Bei bat erditzen, beste batzuk ernari. Lan aunitzen ondorea, frutuak ugari.

D. Manuel Rekalde'k ogeitamar urte daramazki Oskotzen. Euri aunitz egin duela errango ginuke, denbora ortan; eta euri onak. Emezortzi famili baziren errian, besteren lurrak erematen zituztenak; eta gaur denak beren lurten jabe dira. Zorionak bakoitzari bere maillan.

Gaur Oskotz zerbait da Naparroko mobimendu berritan: koperatiba delako elkargoa sortu dute eta danon jakingarri da beren jokabidea.

—Noiz sortua duzute, D. Manuel, elkargo au?

—Orai dela iru urte.

Erritan iritzi batera eltzea zenbat gostatzen den ba dakigu. Auxe da, izan ere, erri txikitako problema aundi bat. Agotik ortzera ez dira elkarrez fiatzen. Nola egin duzute batasun au?

—Lenbiziko lana, etziren etxe guziak sartu. Ogaitasei familitatik, emezortzi. Ez da gaizki. Gañera berengandik atera zen gauza.

—Eta zerk mugitu zituen ortara?

—Beharrak. Gazte jendeak ez du errian egon nahi. Gañera nekazalgo txikiak ez du aski ematen. Eta bizi gogorra da. Badira etxealde onak; baño, mutilendako da irabazia. Ez du konturik ekartzen mutilez lan


egiteak. Etezgon beste biderik: so-roak utzi edo elkartasunean lan egin.

—Sartu ez direnak zer zioten?

—Garai artan etzuten problema orrenik. Famili ona eta bazuten laneko jende. Etxaldeak ere etziren txarrenek. Beren buruz baliatzen ziren eta etzuten elkartzearen beharrik.

Gure aldetik eragozpen txiki bat ikusten dugu pundu ontan eta, berri galdetzen diogu:

—Gaur familia egona gatik, ez al daude biar edo etzi motz gelditzeko arriskuan?



ESKUALERRIKO LEJON

L A Z K A O

Egun aundia Uztailaren 31'an lazkaurrek zutena. Beneditarrek beren nagusia, Aita Mauro Elizondo, Abata eginik ikustean komentua ere beste maila batera goratua ikusi dute. Lenbiziko Abadea.

Belloc, mugaz beste aldeko anaiek sortua izaten da Lazkao'ko etxe au. Andik atera behar izan zutelarik gure artean gelditu eta, geroztik Eskualerriaren eskualdun leran jokatu serbitzatzen dute Eliza; San Paulok judutarrekin judu, eta besteekin beste egiten zuen bezalaxe.

Batikanoko II Batzar Nagusiak, batasuneko bideak erabaki ondoan, bere semeeri eskatzen die, lanbide ontan ariñ ez, oso zur, jokatu ditezela, Apostolu eta Eliz Gurasoak emandako egia eta Eliz Katolikoak arrataz gorde duna, zintzoki azalduzik denen onerako, aztu gabe goitiko izango dala ekiñik gartsuena, Kristo beraren, Eliz eta Elizaren Ama dan Maria doatsuaren otoiñtan eta Espiritu Santu Jaungoikoaren eragiñez.

Zorionak biotzez eta uzta ugariaren asiera izan daillela denontzat.

Z A L D I B A R

Anboto eta Urkiola'ren itzalpean dago Zaldibar izeneko erri txikia, Eskualerriko teatrolariak beren batzarretako artu duten txoko polita.

Eskual teatro baten beharretan omen gera. Erri guziak ba dute berena eta guk ez. Eskual giroko antzerki sortu nahi ontan Xubero aldeko Pastoraletara itzuli dituzte begiak. Ongi egina.

Eta Baxenabarreko "karakotxa" eta "karrosa" zaharrak ez ote litaizke baliatu? Imintziyo ta bertsu, dantzari ta kantu gustagarri izaten ziren.

Katalandar Rikard Salbat gidari dutela, gure antzerkilariak zerbait garrantzitsu eta aundi egin dute Zaldibaren. Ondoko urtetan itz eginen da naski Bizkai aldeko erri ontaz, teatro gaiak aipatzean.

E R N A N I

Luistarrak prestatu eta erriko agintariak lagundurik, jakintza aste ederra egin da Ernani'n. Gure erriak ikasi nahi dute: marka ona.

Ondar egunean Xalbador ekarri zuten omenaldi bat egiteko asmoan. Anoetako giro txarrak ondore onak ekarri ditu. Lazkaon lehenik eta orai Ernani'n Xalbadorrek ikusi du etzela gorrotoz egin Anoetako zalaparta. Pozten gera biotzez eta Aldudeko olerkariari goraintzi.

Mattin eta Xanpun ere an ziren bestan. Bertso ederrik atera zen ezpain aietatik. Gero bazkaria zuzaitzez inguratutako baratz zoragarrian.

Elkar ezagutzeak egiten badu elkar maitatzea, anai arteko egun maitagarriak eldu zaizkigu ondoko egunetan.

D O N O S T I A

Meza erdiko itzak eta beste gañerako latinez egiten diren zatiak ere eskuaraz asiko ditugu laister. Itzulpena egiteko eskualerri osoko jaunak bildu dira Donostian. Ongi etorria danon batasuna.

Iru eskola badira Donostian, uda denboran eskuara erakusteko idekiak. Mundaiz'ko ikastetxean, Yon Oñatibiak duen IKAS-BIDE'n, eta Liceo Santo Tomas delakoan. Pozgarria da angro giroa ikustea.

Eta Naparroko eskolak noizko?

GOLDARAZ'KO ASTOAREN BERTSOAK

Andres Astiz Oderiz «Goldarazko Bertsolaria» zena, Imozko Goldarazten jaio zan 1863 urteko garagarillaren lenbiziko egunean. Ogei ta sei urte zituela, Arruiz'ko Maria Argiñarenakin ezkondu zen, gaztea izanik alargundu eta berriro ezkondu Joxepa Arregikin. 1924'ko otsaillaren seigarren egunean bere Goldaraz'ko jaiotxean il zan.

Argitarazten ditugu gaur «GOLDARAZKO ASTOAREN BERTSOAK». Auek, bere seme zintzo den Aita Andres Astiz Pasionista Txit Agurgarriak idatzitako «GOLDARAZKO BERTSOLARIA» liburuak dion bezela, ezdute itzaurre bearrik. Leitzen dituna, laister ikusiko du zergatik eta zertarako jarri zittuen. Auek, bere beste berso guziek baño, barreatu eta ospestu dute Euskal-Erri guzian Andres Astizen izena.

— 1 —

Milla zortzireunda larogeita zortzi, gure Eliz Ama Santak aurten deramazki; Jaunari eskatuta grazia lenbizi, gerta polit polit bat nai nuke adirazi.

— 2 —

San Anton bezpera zen ta zen larunbate, askok ere gogoan idukiko dute; makiña batek parra azkar egin dute, asto txiki txuri bat dela mediante.



— 3 —

Irurzun'en ferie zen egun orrekin, ara gu joan bai giñen ganaduarekin; utsik baño obe du beti zerbaitekin, denok suertatzen dira nekazariekin.

— 4 —

Patrizio ikusi bai nun kinkillero ori, oiuz asi zitzaidan joateko berari; alkar saldatutzen ala giñen ari, astoa aldamanean zeukan oiulari.

— 5 —

Eskuan billetiak zeduzkan saltzeko, astoa arratsaldean irrifatuzko; erregutu ziraden nik ere artzeko, asto ori lenbailen netzat izateko.

— 6 —

Iñaziio deitu nun bela neregana, artuko ote giñun biyok erdi bana; etzela, ez, garesti biyok sueldo bana, biyentzat izan zedin batek zeramana.

— 7 —

Billetia neronek berexiturikan, bi sueldo pagatu ta sartu nun patrikan; nongoa ta nor nitzan listan arturikan, gero izan etzedin bai-ez'oterikan.

— 8 —

Arratsaldeko iruek laurak bitartean, jendea batzartu zen Estanko'ko atean; billetiak sarturik elte motz batean, «publiko'z» jokatu da guztiyon aurrean.

— 9 —

Bizente Otamendi erriko alkatia, orrek tiratu zuen astoan zoria; berak ere bai zuen jokuban jarria, berak lana eginda guretzat suertiya.

— 10 —

Ogei t'iru numero joan ziran airian, gurea suertatu zen ogei ta laubian; egun da ogeitak gu gera sariyan, pastarako aberea pezt'erdi batiyen.

— 11 —

Kinkalleroak lista leitu zularikan, PRESENTE egin nion aldamanetikan; billetia bertantxe eskuraturikan, astoa nuen artu erramaletikan.

— 12 —

Bi kajoi eta arbald zintxa bai ta manta, itxuraz bazedukan abere eder planta; batzuk zeudeten parrez nerau berriz kantan, onela sartu giñen Bizenteren bentan.

— 13 —

Albukiak eginda t'andik ateratu, jinetiya're ona genduen billatu; andre bat astogañen nik kopak pagatu, Latasa'ra onela giñen alderatu.

— 14 —

Matxikeneko bentan iru bersolari, astoari begira kantuz giñen ari; Astoa sano zegon ez baizegon eri, graziak emateko San Antoniori.

— 15 —

Trago bana edanda t'andik abiatu, mutil bat astogañen genduan paratu; beste lagun iruok atzetik kantatu, Goldarazta onela giñen allegatu.

— 16 —

Jendiyak oarturik gure kantetara, bela ateratu ziren ateriyetara; Iñork etzun prisarik gu ere betara, geren astoarekin denok tabernara.

— 17 —

Astoak irets zitun maize ta belarra, gaixoak bazedukan zerbaiten bearra; gerok ogiarekin denok sardin zarra, trago bat egiteko ez janari txarra.

— 18 —

Asto zintzarri-soñun gerok berriz kantuz, Zapatanian sartu giñun alojatuz; kanta bai eta arrantzaz bazen fundamentuz...; etxeko astoa ere zegoan kontentuz.

— 19 —

Egun artan berian erostuna bazen, bereartan saltzeko arrazoik etzen. Lendabizi trapero erdaldun ori zen, irrifatu orduko galdezkan ari zen.

— 20 —

Amar duro eskatu lau arek agindu, trapero batendako

naiko egiña du; diferentzia beitzen ez giñen berdindu, berak uste zun baño geigo balio du.

— 21 —

Baldin traperoakin konpondu bagiñe, txarra izan bear zun astoaren fiñe; burni ta trapu zarra zata ta espartziñe, oen truke jaboia misto ta sardiñe.

— 22 —

Bigarren erostuna Itsasokoa zen, tabernariya zela berak esan zuen; feria pasatu ta sei egunera zen, ori ere astoaren galdezka zetorren.

— 23 —

Egiteagatikan jaun oiei gustua, aparejatu genduan majorik astua. Bost duro zun eskeñi, prezio justua; alde batera etzen eskeñi gaistoa.

— 24 —

Guliko ostalari pelotari ori, astoa ekustera bera zen etorri. Onak ere eskeñi egin zuen garbi: lendabizi bost duro gero bostet'erdi.

— 25 —

Laugarren erostuna gallego Bizente, orrekin egin degu tratuba dextente; ikus bai zun astoa belarriak tente, pozikan eman zigun diruba «presente».

— 26 —

Pelaje txurie du jeniyoiz fuertiya, joan den udaberrian laugarren urtiya; aixe ordainduko du egin dun kaltiya: Aita San Antoniak diola suertiya.



— 27 —

Orain Bizente dago astoaren jabe; naiz merkexago saldu gu pozikan gaude; ez bagaude aberatsak, ez eta're pobre: bost duro badauzkigu gastutatik libre.

— 28 —

Ogei ta zortzi bertso ok dira guziyak, «aprendiz» batendako geiegi luziyak. Lagundu didalako, Jaunari graziyak; uts egiñak barkatu, leizale guziyak.

BERTSO BERRIAK

Mikel Arotzamena bertsolariak Kaliforniatik Mikel Baraibarrek jarritakoen ordaiñetan.

Bertso berriak jartzera nua ni Lekaroztar bateri bera asia Amerikatik lendabiziko kantari; begiratuak egiña naiz ni bialdu zendun kartari, zuk diozunez badaukazu juandako pena ugari.

Amerikako kontuan berri jarri diguzu aukera, zuk diozunez juan ziñaden txit oso leku txarrera; emen ee lana egiteko zuk izango zendun aukera, ta urrena etxia utzi baño len ondo kontuak atera

Esaten dezu «zakurrak ditut eguneroko lagunak eta ardian lana arekin daduzkat eginkizunak»; Utzi dituzu zure etxeko goxoki ta maitasunak; biotzetikan triste bazaude zertako dira ondasunak?

Ogei urtekin esaten dezu «daukat gorputza tristia» baño denboraz alaitu leike oraindik zaude gaztia. Etzendun asko usteko zer zan aita ta aman uzitia, supritu gabe ezin liteke iñola aberastua.

Egun guzia pasatzen dezu ardiak ezin bilduaz zuk diozunez gañera bizi zera asko suprituaz; Euskal erriko maitasun ori iñola ezin ornituaz, zer atsekabe izango, ituzun Baztan alde oroituz.

Euskal erriatik artzantzarako zenbait gazte Amerikan nik ere lengusiak baditut aruntz juanak emendikan; Esaten dezu gero itzuli zeren buruk nasirikan Sosik ekarriko ezpada ere ez egin olakorikan.

Aitortzen dezu aruntz juatia ori dela desgrazia, baño denari gustatzen zaigu dolarren irabazia; Beste penarik eztaukazu etxia ezin ikusia, beste baterako nola ibilli orain zaude ikasia.

Bertso polit bat bialtze'iguzu Naparruko lagunari, eztezu asko usteko baño istimatzen det ugari; Zu alaitzeko ementxe dator Arotzamena kantari, maitetasuna beti diot nik lagun jatorra denari.

Bertso berriak jarri dituzu asko daude ezjakiña, eta etxetik urruti juanda gero izaten da miña; Euskal erria pentsatu gero guretzat dela egiña, eta kanpora juanbetanik emen saia alegiña.

Burutik ezin kendurik zaude amatxo maitagarria, eta juanetako penaz zaude ori nago igarria; Naparruko txoko politan naparrarentzat jarria, orrengatikan maita dezagun sortu giñaden kabia.

Baraibartar Mikel jatorrari Arotzamenak bertsoak, zuk jarritako polit oriei ementxe daukat jasuak; Eta berriz e ordañak jarri zabaldurikan besuak, indar berria artu dezala gure Euskara gaxuak

Arotzamenak esaten dizu orain azken azkenian: «zu ikusteko gogua daukat nere biotz barrenian, osasun ona eraman zendun z emendik juan ziñanian, eta berriz ere ala ekarri ununntza zatozenian».

«Iñaki Larramendi'k alde egiñ digu atsedeen tokira»

Aurten illabete ontantxe, 1960'ko Aguztuak 10'ean, zazpi urte betetzen dira Berako seme zintzo eta euskal bertsoegille famatu zen Inazio Larramendi Yauna il zela.

Argitarazten ditugu emen gaur beste beratar baten bertsoak, Joakin Aldabarenak alegia; orain zazpi urte baditu, Larramendiren eriotza yakindu zuenean, konpondu zituela.

Irakurri det zure ill berri Aguztuen amarrian. Zugaz memori egiña neukan San Esteban egunian. Egun artantxe BERA'ko erriya beti bezela pozian. Zu berriz urtez karga karga ta etzanda miñez guztian.

Esteban Santuak zeru iririk arrika ill zutenian. Zu re zerura iua zera oi batian ill zermanian. Urtek larogei ta sei zinitun zure bizkarra gañian. Gaztia beti, gazte biotzez; igar ta urtu azalian.

¡Zenbat urtetan eliza koruan kantatu dezun gogotik! Eta oraintxe, dudarik gabe, kanta kantari zerutik. Ariko zera jar goi lekuan poliki osatzen olerkik. Zu goi mall artan zorion osuan, ta gu larri be aldetik.

BERA'ko erriya aupatu dezu bertso jori ta ederretan. Ango zelaia, loretegiak jantzi dituzu argietan. Ango politaz lotan nagola egoten naiz ametsetan. Baziok, egiz, zerkiñ txoratu bertako ainbat bazterretan.

Zure aurretik BASURKO jauna egaka jun zan zerura. Zuk zure txandan alde egiñ dezu justu, zuzenen modura. Bi abeslari erantsi dira Santu guztiyen korura, Jaunari aintza betiko kantan ixilltzen ez dan soñura.


Biok antxetik begi xamurrez begiratu gure artera. Zabaldu ugari bedeinkapena BERA ta IRUN'go tartera. Ixuri goitik agortu gabe grazi guztiyen aukera, egiñ dezagun bide zuzenian enoituz gabe aurrera.

JOAQUIN ALDAVE

LESAKA BESTA ONDOAN

Bi lesakar, besta ondoko igande egun batean, ba- doazi Meza Nagusira, ta, elkar ikusirik, asitzen dire so- la ta sola:

- Batek: Kaixo Iñaki, zer moduz?
- Bertzeak: Ba, motell! Etxakit zergatikan ote den mundu au orrenen desberdiña.
- Zergatik erraten duk ori, motell?
- Zergatikan? Ez duk ionik ikusi noski? Batzuetan bazkaldu, ta siestatxo bat egin orduko illuna izaten duk, ta beste batzuetan, lan pill bat egin ta oraindik eguzkia gorde gabia.
- Bai? Noiz gertatu zaik ori ba?
- Noiz? Bestatan ez altzaik eguna oso laburrak iduri- tsu? Neri benpik bai. Ta orain, fabrikari ari naizelikan, luziak berriz.
- Ba, zergatik uste duk au gertatzen dela?
- Etxakit ba, Erranen nikel eguzkiak ere bestak iza- ten tzaikela ta gero... egunak gaizki neurtu.
- A! Ta, aizak i, iak eta bestak aipatu dittuken, no- la pasatu dittuk Lesakako besta ok?
- Etxakit ba...
- Zer egin duk lau egun orietan?
- Zer? Denetik: Partiduak ikusi, zezenan aintzi- nean ibilli ta... moskor batzuek ederrak eraman itxera.
- Ta andriak ez altzaik yeusere erraten?
- Andriak? Ja! Ni goizeko bi ordutan itxera alletzen neukenean, bera an egoten duken sukaldean kafari urrup agittien.
- Ordu aetan nola ba?
- Nere antzinean sartzen duken ta itxera.
- Ta azkeneko eguna, astelena, ongi pasatu izanen duken, ez?
- Zein? Astelena? Bai zera! Beti goguan biamunian lanera yuan bear naukela ta, goiz itxera, motell!
- Ta aste artian?
- Asti artian kontuk yeikitze. Goizeko seietan re- lojuak io izanen zaiken baño... bai zera! Gero semea etorri zaiken euika mugitzeko, fabrikako tutua aspal- dian yoa zela ta.
- Ta orduan, semea, i baño leen yeiki duken.
- Keba! Orra batere guatziari sartu gabia oraindik!
- I abudo yeiki zaitezen, arek erranta?



- Etxakit. Benpik mutur beltzakin sukaldean agertu nauken, baño andriak ere etzaiken aitz ona ekarri?
- Andria irekin batean guatzetik altxatu al duken?
- Andria? Ze erremedio! Nik orduan aterri nauken oiukin, kentzu zioten guatzian egoteko gogua!
- Orrenen gaistua alde, Iñaki?
- Ba, arrazoi pisko bat ere bai, Zerbaitengatik itxe- ko buru gaittuk!
- Ta fabrikara alletzen?
- Ez, ez. Iñaki, ik emendik ideia puska bertsuak botatze- ko. Ia irakusitziak emen bertan bota batzuek ta...
- Ez, ez. Ia bederatzit t'erdia badittuk, ta mezetara yuan bear diguk. Urrenguan botako dicit.
- Ba, orduan, urrengua arte nere leitzalle maiteok, ta ongi ibilli.

KOSKONTA

IKASI, MIKASI...

¿BOSTAK ONDOREN, SEIEK? ¿EZ BETI!

- Sartu, sartu aurrera, Martijoxe, ta eseri zaite.
- Eskerrik asko.
- Ze, oraindik zailtsu zaizu misteriotaz siñestaten?
- Misteriotaz siñestate'ot, bestela ezin giñeke bizi; geigo baita ez- dakiuna dakiuna baño, eskola gutxi degunentzat biñepin...
- Eskola gutxi ta eskola asko dutenentzat. Ori bera zion Pasteur, fran- ziako gizon jakintsua izan zen arrek: "Zeinbat eta geiango ikasten detan, ekusten dot geiango dela falta zaitena jakiteko".
- Zeinbat gauze dire mundu ontan ere, ez dakizkigunak! Ez dakigu zergatik aur bat mutikoa edo neskatoa jaiotzen den. Ez dakigu zertako lo egin bear degun. Ez dakigu nola begiekin egusten ditugun margo edo kolore guztiak. Ez dakigu nola aragizko belarriekin aditzen ditugun dun- bots eta zurrur guztiak. Ez dakigu botikara goazian, sendaki edo pozoia ematen dugiten, eta jartu bear!
- Fede gabe, siñestatu gabe, ezin giñeke bizi. Ta —lengoa esan nizun bezala— gizonai siñestaten badiegu, ¿nola Jaungoikoa ez siñestatu?
- Baietz, baietz, egia dela berorrek dióna. Ta, orrengatik, nik siñes- tatze'ot gure Eliz Ama Santak erakusten dizkigun misteriotaz. Baño, ¿ze dio berorrek milagrotaz?
- Al ditezke, izandu direla ta izaten direla noizpin bein.
- Milagro guziaz siñestatea beartuik gaude?
- Begira, Martijoxe. Askotan, gizon batzuk eta batez ere emakume batzuk, edozein gertaketari miraria deiten diete. Oitaz, ez siñestateza, ez da pekatu. Baño Eskritura Santuak dakazkin miraritz biñepin, siñestatu bear da.
- Nik uste nun, mirari oik Ebanjelioak eta Santuen Bizitzak apain- tzeiko jartzen zituela...
- Bereala bat esan genezake Anibal, Carlo Magno, Ernan Cortes, Pi- zarro, Napoleón eta gudalari guztien izugarritzko egintzak, beren Bizitzak apaintzeiko besteik ez direla izango...
- Gertaketa oik, istoriak dakazki, ikusi eo aithu zithutenak jarri ta.
- ¿Ta, Jesukristok eta Santu askok egin zituen mirariak, etzituén iñok ikusi? Etsitzen bost mille gizon izan Jesukristok ase zituenak zazpi ogi ta arrai tviiki batzuekin?
- ¿Ordun, berorrek uste du miraria posible dela?
- Jaungoikoa GUZIALDUNA bada...
- Jainkoak ongi egin zitun gauza guztiak, eta bakotxei bere legea ipiñi zien.
- Ez dizut, ezetz esaten.
- Mirari egiten dun bakotxean, badirui gaizki egindakoa konpontzen ari dela...
- Ez, Martijoxe. Jaungoikoa GUZIZ JAKINTSUA ere bai da, ¿etze- zaken aurretik asmo artu aldion batean beste alde egiteko?
- Ni ezjakiñe bai naiz gauze oitaz, nai nuke garbixeo ikusi berorrek dion ori.
- Adieraziko dizut zuk ere aurki ikusitako gertaketa batekin. Nik lendabiziko aldiz Larraungo erri batean ikusi nun, misioak ematen ari nitzela. Eguner, bostak jota bela, aditzen nuen jotzen zetela ARGEZKI- LLE, ogeita amarren bat dauda. Nik uste nuen gizon on batek jotzen zuela, eta ala bein esan nion sakristau, athuna zarrari: —"¿Egunero, ain audo jektitzen zera ARGEZKILLE jotzeko?" —"Jaune, esan zidan, ezkildorreko erlejuk berez jotze'o. Iruñeko relojero batek jarri ziun, ta ¿mesede ederra ein zeen neil".
- Uste dez, Iruñeko relojeroa bezin jakintsuagoa ez dela izango Jaun- goikoa, legeak jarri zituanin asmo artzeko: —"Olako aldi batean, ure ardoan biurtuko det Kanako estaietan; beste bein, itsu jaiio bateri bista emango diot. Baita ere, Lazaro, nere lagun onari, obiratuta lau egun on- dorean, piztuazi diot, eta ola...?"
- Oain, azkeneko galde bat. ¿Zergatik egiten ditu Jainkoak mirari oik?
- Jesukristok, Berak, esaten digu zergatikan egiten ditun gauze mi- ragarri oiek. Ara emen, MEZA-BEZPERAK izena dun Meza-Liburutxo au. Irakurri ditzagun "Lazaron Igandea" deitzen diegun Ebanjelioko za- titxo batzuk:

«Lazaro Betaniar, Mari ta Marta aizpen anaia, gaixorik zegon. Ontan, aizpa ok mandatu au bialdu zioten: — Jauna, maite duzuna, gaixo dago. Jesusek, aditzean, au esan zun: — Eriotzarako ez baño Jainkoaren osperrako da gaitz au, bide ortaz Jainkoaren Semea goretzi dezaten. Lazaro, gure adiskidea, lo dago. Esnatzea noakio. — Lo ba- dago, sendatuko da, esan zioten. Jesusek orduan garbi esan zien: — Lazaro illa dago, ta pozten nau zuek an ez egonak, siñetsi dezazuten. Ara iritxirik, lau egun obiratua arkitu zun...»

Jesusek esan zien: — ¿Non ezarri duzute? — Zatoz, ikus, Jauna, — esan zioten. Jesu malkoak atera zitzaizkion. — ¿Bai maite zula! ziaготen juduek. Esan ere, bazuten aietako batzuk: — Itsu jaiuari begiak argitu zituen onek, ¿ez al zezaken eragotzi au iltzeaz? Jesus, berriz, intzirika, il-obira urbildu zun. Arrizulo bat zun, losaz estalia. — Ken zazute losa, esan zien Jesusek. — Kiratsa dario, esan zun illaren arrebata Martak. — ¿Ez al dizut esan, erantzun zion Jesusek, siñesten ba duzu, Jainkoaren dirdaia ikusiko duzula? Kendu zuten, beraz, arria, ta Jesusek, begiak gora jasorik: — ESKER ON, AITA, esan zun, ENTZUN NAUZULAKO. BA-NEKIN, BAI, ENTZUTEN NAUZULA, BANAN INGURUAN DAUDENONGATIK ESATEN DUT, ZUK BIALDU NAUZULA SIÑES DEZATEN...

Au esanda, oiuz ozen egin zun: — ¡LAZARO, IRTEN ORTIKI! Eta bertan, illa zegona, atera zen esku-oiñak loturik, aurpegia ill-oiñalek estalirik. ARREZKERO, MARI TA MARTA'gana ETORRI JUDU AS- KOK, JESUSEK EGINA IKUSITA, UA SINESTERA JO ZUTEN...

«Ekusten dez, Martijoxe, mirariak baditezke izan, eta zergatik egiten ditun Jainkoak noizpin bein?»

—¡Jaune, oain bai, siñestate'ot mirariak ere!

A. ASTIZ ARREGI

BERTSOLARIAK



Fernando Aire, «Xalbador» izenez diotena, Urepelgo «Xalbador» bor- dan sortu eta bizi dena, Frantzi al- deko nafar bertsolari anai maite- maitea. Agur bat «Xalbador».

Aurten Elizondoko bestetan bertsolariak ere izan ditugu. Santio aintzineko igandean, Iriarte deit- utako pilota plazan aritu ziren Euskalerriko bi bertsolari oboerenak eta bertze bi oboerenak; Uzta- pide, Xalbador, Mattin ta Lasarte, lauak maitagarriak euskaldun zin- tzoak eta gure adiskide jatorrak. Besta untan erabili zituzten gaiak gustagarriak izan ziren, batzuetan irringarriak eta hunkigarriak bert- zetan, dena arras ongi gertatu zel- larik. Yendeak zer irri-ajatak egin ote zituen Mattin'en ateraldiekin, zer txalo ta esku-zartak yo ote zi- tuzten... Gure lapurditar koblaría maite du yendearen bertsoak be- ti badute gatz ta piper eta ori gus- tatzten yendeari. Uzta-pide, Lasarte ta Xalbador, gai hunkigarrietan agitz ongi eta bakotxak bere lanean arrazoin ederrak emanik, iruek be- ren burua zein xarmanki aldeztu edo defenditu zuten. Lasarte ta Xalbador'ek «Aita ta Semea'ren ixtorioan» lan miresgarria egin zu- ten, an etzen bertso ariñik, gai orreri zagokion bertso sakon ta ma- mitsuek baizik. Lan ortan bi kobla- riak aita-semearen auzia ederki as- ki agertu zuten.

Uztapide ta Xalbador lan hunkig- arri batean ari izanak dira «Ama alarguna ta seme bakarraren Ame- riketara yoateko naikeria». Gai unek badu emen zer ikusirik ori gure eskualdean gertatu izan dena baita. Uzta-pide ta Xalbador ongi beren arrazoietan, bertso ederrak erakutsi zizkiguten.

Mattin'ek ta Xalbador'ek bazu- ten bai zer erran beharra, Mattin amabi neskatikoen aita ta Xalb- ador mutil-zar aberatsen ixtorioa egin zutelarik. Bi koblari oken ai- taldia ere guztien gañekoa izan zen Bein eta berriz erranen dut bertsol- arien bestak direla euskaldun yen- dearentzat yostetarik maitagarrie- na, batez ere koblari onak balin ba- dira eta erabili behar dituzten gaiak egokiak badira; ortan behar genduke arreta aundiarekin yokatu gai politetan baitago bertsolari fe- staren ondore-na.

Yende aunitz bildu zen Elizon- do'n, an ikusi gintuen mugaz bert- zaldeko adiskide aunitz, eta bai Bidaso, Gipuzko ta Baztan alde- koak ere. Yendea kontent zagon.

Bertsolaritzaren birtazte euskal- dun guztiak bat eginik ikusi nai genduke, Lapurditarak, Baxena- fartar ta Nafartar eta bertze gañe- rakoak, denak batean Euskara ama- ren altzoan bildurik.

IZETA

1967'go IÑAKI ta MARI KARMEN

1967'GO UZTAILLEAN

Gure errietako pesta-egunak, «erriko pesta egunak» alegia, asi zaizkigu aurtengoz. Ala ez iruditio arren batzueri, gure errietako pes- ta egunak, onbide asko dakartzki- gutela iruditzen zait. Lenengoa, ta ez txikiena gañera, pamilli bere- koak alkarrekin artu-emanak izate- ko bidea sortzen dute. Gañerakoan, sekulan alkarrenganatuko ez diran anai ta aide asko, pesta egunak di- ralata alkarrekin bilduko dira. Mai baten inguruan biltzeak, anaitasun eta adiskidetasun askoeri eusten laguntzen duala, nork ukatuko?

Ortaz gañera, bein edo beste ai- patu dudun, gure errietako igande arratsalde «utsaren» osagarri dira.

Gizon ta emakume guztiori, gure lan eta buruaustetaz noizik bein aztutzea, komeni zaigu. Nai ta nai- ezkoa zaigu.

Onbideetaz gañera, txarbidetaz ere ba-dakartzkitela, erantzungo di- dala norbaitek? Ezetzkoan ez na- go. Giza-jokabide guztiak berekin dakartzkiete. Ta zer...? Bereala txartzat eman...? Txarbidetaz usaia sumatzen diegun jokabide guztiak alde batera utzi ta oinperatzen sai- atu bear al dugu bereala, besterik gabe? Txarbidetaz gutxitzen eta on- bideak ugartzen saiatzea obe, ez al da? «Positivo»ago ez al da?

Baño ortan eztabaida sortzera ez niñon. Gure errietako pestetan nik ikusten dudun beste gaitz baten


atzetik nenbilen. Gure errietako pestak jatortasuna, euskal-usaia gal- tzen ari dirala uste dut. Gure-gurea dugun zerbait utzi ta gurea ez dan zerbaiten atzetik geiegi gabiltzala- ko ustean nago, Kanpoko, kan- poko dalakotz, txartzat ematearen aldekoa ez naiz. Kanpoko bai, ba- ño gurea nagusi dala. Beste errial- dekoetatik berekuntzarik ez du- ten pestak ez dira guztiak.

Beste kultura eta oiturekin gu- reak osatzea, ongi dago eta bearrez- koa da, baño aiek guretat, gureak aien mende jarriaz, artzea, saltza- lleak, «traidoreak» izatea besterik ez da.

Askorentzat uskeri eta txorakeri (bostgarren orrian jarraitzen da)

IBARRONDO

ERRIZ-ERRI



LESAKA

Bi edo iru illabetez, «Principe de Viana» errebista onen Lesakako tokian, agertu dira artikulo txiki batzuek «koskontak» egindakoak. Guztiok, ta batez ere, Lesakarrok leixu dituzue lantxo ok, ta akautu duzutenean, elkarrari galdetzen asi zerate, nor dan KOSKONTA ori. Nik ere aunitzeri galdetu diot, ta niri re galdetu dirate, zertaz ez, baño denak erran dirate, nik erraten nuna: Ezdakit nor dan.

Orain denoeri egin nai duzet galde-modo au: Nai duzue yaikin nor dan Koskonta misteriosu ori?

Badakit dagonoko nai duzuela denak: Ba NI naiz. Bai, au, lan txiki au egiten ari dena da Koskonta.

«Baño orrekin lenago bezela gelditzen gera», erranen duzue denak marmariz nere leitzalle oyeke.

Zer nai duzue ba? Nor dan NI ori? Batzuek Erretora (Bikatxo) Jauna edo Esparza'tar oritik nai zela erraten dute. Onela pensatzen dutenak oso deskuituak dagozi.

Nor nai ba?: «Ortzioik» ba koska. Au onela biarra izanen da, ta berriz ere NI ori nor dan ikaso gabe gelditxu bearko duzue. Zer egiñen du gu bai!

Orain, gauz au oso alde batera utzi baño len, nai dut bertze gauztxo bat garbitu: «Zergatik niki izena ori paratzen dut, ta zergatik ez nere izen egiakoa?» Arrazoiia ageri dago: NI gauz bat edo bertzia aipatzen aritzen naiz, geientan Lesakarren DENAN kontra edo alde, ala izaten da benpik nere intenzioa. Baño gertatzen da, aunitzek artzen dute ebentzako nik erraten duten ori.

Ba nik nere izena paratu ezkerok, ebentzako artzen duten ok, badakite nor naizen, ta onela etorriko ziran aserretasunak, ez nerekin bakarrik, baizik nere anai-arrebakin ere bai.

Ezin dut ukatu batzuek badaizutela nor naizen. Ezdakit bertzi-eri erraten aritzen zeraten, baño benpikan eznuke nai.


Akautzeko, bi eskaera ok egin nai duzet: LENENGOA:

Koskonta au nor dan badakizuten oyeeri, egon zaitezten ixill ixillik. Ta norbateretik, andik edo emendik enteratu balitzete, zer egiñen dugu bai!

Iñork ere ezdezan artu berantzako nik erraten aritzen naizen ori, denantzako errana izaten baita.

Orain badakizue ba, ta urrengua arte...

KOSKONTA



BAZTAN

Aurten Elizondan besta ederrak izan ditugu, yende aunitz bildu da eta bai ikusgarri ederrak ere euskal giroa berekin zaukatela. Santio aintzineko igandean bertsolariak izan gintuen. Santio egunean urtero bezala goizean Meza Nagusia gero eguerdi aldean Mutil-Dantza; arratsaldean Donosti'ko Goizaldi batasunekoak euskal-kanta ta dantzak erakutsi zizkiguten. Donostiarren ekinaldia guziz ederra izandu zen. Bigarren egunean (26'ean) Goizean erreboteko partida billabonatarrek eta iruritarrek aritu zirelarik. Arratsaldean esku uskako bi pilota partida. Ezkurra ta Sorazu'k, Iribar ta Etxabe XI garaitu 22-19. Gero Bergara ta Lajos'ek aisa irabazi Retege ta Etxabe X'ri 22-7. Lenbiziko partida gustagarria izan zen baño bigarrenak gutti balio zuen. Irugarren egunean (27'an). Goizean guantezko partida eta arratsaldean ezpeletarrak ta baztandarrak zeingegiakoa aritu zitzaizkigun, sokatira, lasterka eta bertze motako yostetak egin zituztelarik. Ezpeleta'ko «Klika» ere an zen bazter guziak iñarroteko.

Laugarren egunean (28'an) bizikleta lasterketa, Baztango itzulia eta arratsaldean erriko plazan aurrentzat yostetak. Igandean (30'ean) egun eder bat izan ginuen Elizondan. Iriarte deitutako pilota plazan Euskalerriko dantzari txapelketa ospatu zen, dantza laxoan fandango eta arin-arin etan bidenazka zeñek obeki dantzatu. Txapelketa

untan 15 bikote ari izanak dira. 9 gipuzkoar, iru nafartar, bi bizkaitar eta arabar bat. Dantzari onak denak, beren ahalmenak ongi aski erakutsi zizkiguten, baziren iru edo lau bikote lenbiziko saria merexi zutenak, baño ortarako bat bakarrik berezi behar eta ori baizen zalla. Badakigu zenbaitzuk etzauzela konforme bainan Epai Maikoen erabakia zorrotza da eta arek balio du. Auzia orrela moldatu zen:

Txapeldunak: Etxaburu-Bilbao bizkaitarrak Ondarrukoak.

Bigarrenak: Xabier-Mariñe bizkaitarrak, bilbotarrak.

Irugarrenak: Arraztoa-Arregi gipuzkoarrak, donostiarrak.

Baztandarren artean lenbiziko saria Oyaregi anai-arrebak irabazi zuten.



BIDASOAKO BERA

EUSKAL BESTA, JAI IKUSGARRIA

III onen 27-an Berako biztanle guziak eta Bidasoako bost erri guziak bat egingo dute noski erri ontan, Jai eder bat, oso pozgarria, Nafarrako Diputazioak erri ontan egitea asmatu bai du. Yuan den urtutan, udako lenbiziko egunetan, Diputazioko euskal lanetan ain biotzez, euskera zaitzen eta degun ondasun aundia au, ez galtzera uzten, dabilzten Jaun goragarriak emengo 279 mutiko-neska euskeraz examiñatu edo aztertzeria etorri ziran. Eta aurten, uda onetan 29-ko Dagonilla edo Auztoko ill onetan, gure mutiko-neska euskaldunak saria edo premia artuko dute bakotzak, geyenak, 200 ptas. «Caja de Ahorros de Navarra» kartillaren bidez.

Ikusi zazue, ze edertasun bizi bizian egiñen dan besta au:

1) Dantzariak. Iruñako Erriko-etxeke edo Aiuntamentuko dantzariak, Euskalerriko bazter guzietan ain aipatuak, udako igande guzietan, erriz erri, emen ta Francian dabilzananak. Bera erri ontan lenago ere, dantzatu ziranak, baita beratar guzientan biotza atsegin du ere.

2) Abeslari edo kantore bikiñ billera edo talde batek edo «ez dok amairu»k, izendatukoak, gure belarriak gozatuko dituzte. Billera onetan, M.^a Lourdes Iriondo neskatxak, ain aipatu (radioan ere aren abesti eztiak entzuten dira) berak bere buruz egiñetako abestia edo kantuan eta itzetan gure barrera bigunduko du, negar goxoari ixuri arteraño. ¡Aingeru bera diru-dil!

3) Bertsolari onenetakoak, nola diren Lasarte-Xalbador, Arozamena edo Narvartek bost erriko yendeak berenganatuko dituzte.

4) Bereala, Peru-Txikik, nai badegu edo ez, irri ta par lertzeraño, bere erran bizi ta celebriakin, ezarriko gaitu...

5) Urmeneta Diputadu Jauna agurgarriak, besta onetan buru egiñen du eta aren itz yakinsuak izanen dira jai onen ta azkena.

Jai ederra ta oroigarria egiñen dana! Denak egun ontan besta onen zail



NAPARROKO BIZIA

ZER GERTATZEN DA ESKUALDUNON ARTEAN?

Orai artio beti uste izan dut azpi jatea satorren lana zela; ez gizonena. Behar bada ni izango naiz satorra, gauzak ez ikusteko. Baño oraikoan ikusi ditut. Lurpetik atera naiz, beraz, eta gauzak argi eta garbi esan nahi. Zer gertatzen da eskualdunon artean?

Uztailaren 9'an aizkora apustu aundia egin da Iruñeko zezen plazan. T. V. delakoak zabaldu zuen Espainia guzira eta atseginez bertarik ikusi dugu gure gauzak, Euskalerriko oiturak, bide zabalean sartzen asiak direla. Ori bera esan ginuen Anoetako azken txapelketako pilota partida tresna oietan ikusi ondoan.

Uste ginuen —ustearen ustela!—, eskualdunok finak ginela; eta eskualdun festak eratzean Euskalerriri begira ginuzkela begiak. Eta gero nun agertzen diren satorren muturkako lanak...

Donosti aldeko aizeak bazter guzitatik kezka baizik etzuten. Ama-bi egur, askotxo ote zen; bero garaia; sari txikiak; sarrera garestia... eta ala. Anoetan aizkolariak belar gainean etzanik ikusi zituztenak, nunbait ezurretaraño sartua zuten bildurra. Eskerrak emateko da beren atzapuan ez erortzeko aurrez abisatzea...

Baño, ba zen besterik istillu ontan. Txapelduna gaizkitu!!! Zer garaiko gaitza! Alare, otza biriketetan sartzea ez da bakoitzaren baimenarekin gertatzen den gauza eta ixilduko giñen, beste zerbait entzun ez ba ginu. Donostiko irriatik ekarri zigun berria: «Gorriti-koak bazuela Astibia'rekin apustu aundi bat eta etzitzaioa Iruñen agertzea komeni. Gañera, San Ferminetako sariak etzirela Anoetakoak bezain onak, eta beste alako zittelkeriak.

Gure gizentasuna ontan dela sinesteak lan du; baño izan daikena! Gauzak errotik jakiteko ofizialki bialdu zuten gizon bat aizkolariaren errira. Eta egun gaiztoan, joan ere. Etzen birrik sendatzeko moduko denbora baño, Berekoetxea tratoreakin lanean arrapatu zuen...

Ez da gure egitekoa auzi ontan sartzea. Ez dakigu agintariek zer erabakiko duten ere. Euskalerriri gure arra agertu nahi diogu bakarrik.

Diru kontua? Trapu zikinak, esango nuke nik. Sator lana. Komeni da Euskalerria mundu zabalaren begitara ateratzea? Bertsolarien txapelketa ondoan esaten ginuen bezala, behar bada obe ginuke gure miseri guziak sukalde zokoan ixilik gordetzea.

Azpi jaten dabilzten «jauntxo» oiek eskualdunon izen onari egiñen dioten kaltea begiratu behar lukete. Zer ajola du Iruñen edo Donostian egiteak, ongi egiña balin bada? Eta Iruñekoa bai ondo egiña zegola; ez eta Donostikoa...

Len gutxi gera ta, gero gure arteko satorrak... A zer eskual batratzea!

SAGI

OTSAGI (OTSAGABIAN) ALDEAN ZER?

«Principe de Viana» illerokoa dut esku artean. Naparro'ko Salazar aldean amabost egun igaro ondoren ezin naiteke bertara bi itz zuzendu gabe gelditu. Bertan ikusi ditugun gauz on eta akatsak aztertu nai nituzke.

Jende biotz onekoa ezagutu degu, beti laguntzen eta beti laguntzeko dagoana. Ume, gazte eta zaar, denak argiak eta alaiak.

Toki politik ere ikusi degu: Irati, Ori, Itzaltzu, t. a.

Iratiko basoak oso atsegin izan zitzaizkigun. Nere iritzi auek duten doairik bereziña pago eta aritez jositako egotea da. Beti ikusi izan ditut piñua eta erdera alkarri eskua emanda: ua gure basoak illundu ditualako ta au gure izkuntza gazteen artean ixildu-arazi dualako. Bañan orain konturatu naiz ez dabilzala ain urrean. Emen Gipuzkun gure baso geientsuenak piñuz josirik ditugu, mendiak beltzez estalita agiri dira, bañan euskera, naikoa zoritxarrez bañan oraindik ezta zearo illundu. Naparroko errialde orretan berriz basoak piñurik gabe eta gazteak euskera gabe ezagutu ditugu.

Egun batez, jai-aldi batean gure ondar aletxoak eskeñi gendun: euskal abesti, dantza, antzerkitxo t. a. agertuaz. Jendeak oso arrera ona egin zigun. Euskal odola zeramakitelako konturatu ote ziran?

Euskal-erriak euskerarik gabe ezagutzea oso samargarria da ta kezkatu gera zer indar izan ote dan ortik gure izkuntza uxatu duana pentsatzean.

Industria? ez, ez, ezpaidago gelegi.

Eragozpenak? an eta emen berdintsuak izango zirala deritzait.

Turismoa? ez, au sartu baño lenagoko akatsa baida.

Eleiztarrak? erria apaiz euskaldunik gabe arkitzean arriturik gelditu gera.

Etsai gelegi ditu euskera gaxoak.

Egun gogoangarriena aitatzeria noa: Otsagin igaro gendun bigarren igandea: goizean-oiz zuzendu giñan errekaruntz. Egoardian Donostiko sendi baten ikustaldia izan genun, ta arratsalde zaldetako guztia zintzo elkartu giñan Ripodas'ik zetorren apaiz euskaldun-berri on Martzelino'ri itxoiteko. 7'ak inguruan iritxi zan eta zazpi t'erditan eskeñi gendun Mezako oparia. Eta gure izkuntzan; Otsagin noiz izan ote da meza euskeraz? Gutxitan edo... inoiz ez. Apaizaren itzaldia gure biotzak ikuttu zitun, zer pentsatua eman zigun.

Meza ondorenean gure etxeko «gela nagusian» elkartu eta jaialdi bat eskeñi nai izan genien on Martzelino, Otsagiko erreto eta beste bi sendiri. Abesti, dantza, Sorgiñak akelarren (agerketa), erretristaren antzerkitxo t. a. Jai-aldi alai eta anaitasunekoak.

Guk nai baño lenago sartu zitzaigun illunabarra ta pena gendun «Agur, agur, agur» abestu bearra, bañan datorren urtea iritxiko da (J. L. ta or izango gaituzue guk degun guztia eskeñi nairik. Bitartean, anai euskotarrok euskaldundu, ia datorren urtean Gartxoten izkuntzan mintzate geran.

Esker beroenak ainbeste lagundu diguten Otsagitarrei.

Ta napar guztioi agur t'erdi.

ITZIAR BIKENDI

1967,go IÑAKI ta MARI KARMEN

bat besterik ez dan zerbait ukitu nai dut. Pestetako berriak dakartzkiguten paper oiek, euskeraz ematen dizkiguten Aiuntamentuak zenbat dira gure artean, Euskalerrian alegia? Nik dakizkitenetan alerik ez! Euskal-usaia eta giroa ortan bakarrrik dagola ez dut esan nai baño ori Euskal-giroaren palta dala ezin ukatu.

Paper oietan alkateak jarri oi duan itzaurrean, al duan erderarik

«eleganteenean» euskaldun utsak diran erritarrei itzegitea ez al da euskal-usai palta ta astakeri galanta? Kultura-usaia ta jakinduria agertu nai duan gizon ori ez-jakiñ galanta dala, ezin esan ote genezake?

Txorakeri bat dala au? Batzuentzat ba-liteke, baño nerretzat ez. Barrengo gaitz aundi eta makurrak, siñale txikien bidez agertu oi dira!

«AUNAMENDI»

SANTIAGO EGUNA BANARTA'N



Lesakako, Banarta izena dun zelayan, Nabaztar mutillak bazkaltzen ari dira, tranquill ederrin ta elkar asertasunak antzita. Baño, ez uste bazkarikin akautu zela besta. Illuna-barrian izandu genitun soka-tirak, bersolariak, ta batez ere kordiona gazte guztientzako. Antxen, soruan yarrita nagolikan neska-mutille okeri begira, gogotu zitzaidan bertso motx au:

Mutillak dantzan, aurrak begira, zaharrak luze irrintzi, besta akautzen, denak etxera, elkarrakin solas ta irriz. Oraixten baiez, gure «atxonak», ixill egon bearko dute, Nabaztar oiek, besta onekin, ortzak irautxi bai diozte.

ERKIZIA'K

Baztandarren Biltzarra



Agorrillaren 6'ean Baztandarren Biltzarren eguna ospatu da Elizondon. Egun ortan, goiz goizetik zerue garbi eta iguzki dirdiranta agertu zitzaizkigun, eguraldi ederraren zoriona adierazten zaukute-la eta ala gertatu ere. Baztango iri nagusian egun zoragarri bat izan dugu amalau errietako yendeak emen bildurik, aurtengo besta au guzien gañekoa izan da.

Goizeko bederatzit t'erdietan eskuarazko Meza izan ginuen, eliza beñere ez bezala betea ixkilin bat kokatzeko lekuri ere etzela. Aldarean amar apez baztandar Meza ematen eta erria kantari. Egia erran egundeño eztugu orrelako mezarik entzun Elizondon. Hunkigarria bai zinez batek baño geiago biotz zarratzadaren bortxaz pozezko negarrak egin zituzten.

«Zure argiak argi ditzala erri guziak mundu zabalán».

Herriak kantatzen zuen, Baztandar erri ttipietako gazte euskaldunak erri audietako erdaldunduei erakaspem ederra ematen zabeztelarik. Ortze zauden Lekauzko ta Gartzaingo neskatx gazte oiek beren boz oxenekin eliza betetzen zutela. Arizkungo erretore Yaunak baztandar bilgurari buruz itzaldi hunkigarria egin zaukun. Meza unek oroitzapen eder bat utzi dauku.

Meza ondoren karrozen edo orgen ibillaldia Elizondoko karriketant barna itzulia eginenez. Lenbizikoak zoazin, erriko txistulariak Baztango bandera edo ikurriña aintzinean zutela, gero denak lerro lerro errietako karrozak oien ingu-

ruan gazteria kantuz eta dantzan zoazilarik, eta karrozen artean ere Lesakako dantzariak, «Irungo Atsegiña» batasuneko txistulariak, Iruñeko txistulariak, Bilboko albokariak eta «Triki trixak» eta azkenik Iturengo gare-yole edo «zapanzar» deitutakoak. Ikaragarritzko yendeketa bildu zen, karrike guziek bete beterik eginik beñere ikusi eztugun bezala. Ibillaldiaren ondoren plaza zaharrean Baztango gizon ta gazteak Mutil-Dantza eder bat dantzatu ginuen eta orren ondolik Lesakar dantzariak ere aritu ziren. Denentzat txalo ta esku-zarta aundiak yo zituzten. Gero bazkaria, zazpi eun bazkaltiar maiean yarririk eta gure artean Nafarroako

Yaun Aintzindari audienak zaudelarik. Bazkalondan, kantariak, Txistulariak, albokariak, triki-trixa, dantzariak, kordionistak eta bertsolariak, Arotzarena ta Klemente ari izanak direlarik. Bestari buruz eta eskuararen alde bertso ederrak bota zituzten. Gero bazen umorea, mutil-dantza, soka-dantza, fandango ta purrusalda gazte ta zahar guziak egiñaletan dantzan ari zirela.

Gero plaza zaharrean eta arratseko amarrak arte txistu soñuarekin naiko dantza gazteria ederki yostatu zelarik.

Arratsaldeko zazpi t'erdietan «Maitena» deitutako salan, Donostiko Antzerki Taldea Dolores Agi-

rrere buru dutela, Antzerki guziz ederra erakutsi ziguten. «Ori'ko txoria Ori'n» izeneko komedia emanik. «Maitena» bete zen eta donostiarren lana yendearen gogokoa izan zen. Antzeslari bikañak donostiar auek, aunitz dakite eta zein apainki eta atsegin aundiarekin moldatu zituzten beren egin-beharrak. Zorionak donostiarrei eta batez ere beren Aintzindari Dolores Agirrerri.

Baztandarren Biltzarren eguna igaro da eta baztandar guziak oroitzapen ori beren biotzetan atxikiko dute.

IZETA



Sukaldean:

—Ama, aingeruak egalik ba dute?

—Bai, jakiña.

—Lengo egunean aitak «aingearua» zela esan zion serbitzeko neskatolari. Noiz joango da txoriak bezala, egan?

—Gaur bertan; nik eskuan duten au uztean...

Juezak:

—Zergatik hil duzu gizon ori? —Neri zergatik hil zidan ari galdetzen lanik ez izateatik.

(Edozein eskinetan sartzeko pentsamendua)

Eskualerria len ezta aundia, eta Naparroa kentzen ba diogu zertan geldituko da? Obe da ez pentsatzea.

Naparrak, gaurko eskualdunak biar ere eskualdun.

Eskolan:

—Zer jaten dute otsoak? —galdetzen du maisuak.

—Arrapatzen dutena.

—Eta ezer ez badute arrapatzen?

—Orduan edozein gauza.

Medikuan:

—Agin bat ateratzeko esan dizut eta zuk iru atera!

—Badakit, bai! Indizio geiegi sar-tu dizut eta pena ematen zidan galtzea.

AIZKOLARIAK

Yoan den Uztailaren 9'an Iruñeko zezen plazan Espainia'ko aizkolarien Txapelketa yokatu da. Milaka yende bildu ziren aizkolari eskualdunen borrokaldia ikustera eta Telebistaren bidez zenbat mila edo millon ote ziren gudukaldi au ikusi zituztenak. Aizkolarien txapelketak izan du arrakasta.

Lau aizkolari izan dira beren indarrak negurtu dituztenak. Nafarroatik, Latasa sunbildarra eta Astibia leiztarra eta Gipuzkotik Arriya azpeitiarra ta Zeberio ataundarra.

Berekoetxea gorritiarra erixko zagola ta ezin-etorria adierazi zuen, haren ordez Zeberio aritu zen.

Aizkolari bakotxak 12 onbor moztu beharrak zituen, denak batean asi ta lan guzia zenek lasterrago egin: lau kana-erdiko (1,25 m. itzulia), lau 60 ontzako (1,40 m), bi 72 ontzako (1,67 m), eta bi 80 ontzako (1,86 m). Udara ezta aizkorarako aproposa, lan bortitza da eta beroarekin gizonen ler egiten



dute, neguan aizkolariak sasoin gehiago izaten dute bai.

Trabesak len lenbizitik Latasa' ren alde zauden 100-60 ri uuiu egiten zutela.

Lendabiziko enborra Zeberio ataundarrak moztu zuen lasterrera, bigarrenari bortz segundoen alde atera ziolarik. Bigarrenean Latasa lenbizi 18 segundoen abantailarekin, gero irugarren, laugarren, bortzgarren eta seigarrenean Astibia aintzinean baino Latasa urbil urbilik yarraikitzen ziolarik, sunbildarra lanean aisa ari zen eta zazpigarrenean aintzinaldia harturik gisa hortan lan guzia bururatu artio 12 enborrak porrokaturik. Latasa Txapeldun.

Hemen Txapelketaren xeetasunak:

Txapeldun Latasa — 1 - 3 - 30 tan — 2360 aizkora kaska.

Bigarren Astibia — 1 - 6 - 27 tan — 2237 aizkora kaska.

Irugarren Arriya — 1 - 11 - 23 tan — 2793 aizkora kaska.

Laugarren Zeberio — 1 - 15 - 45 tan — 2565 aizkora kaska.

Zorionak Latasa txapeldunari, sasoin izigarrian dago eta zalla izanen da horrerri Txapela kentzea.

Astibia ere agitz ongi, berak dio etzagoia ongi prestatua eta erran dio sei ilabeten buruan Latasa'ri yokatuko diola. Apostu hori ederra izanen litzake eta kasu Astibia gaztearekin, denbora frexkoakin bel-durgarria izanen baita. Baita ere diote Berekoetxea prest dagola txapeldunarekin buruz buru yokatzeko. Ikusiko dugu espantu horiek guziek zertan gelditzen diren, denbora lekuko.

Arriya gaztea aizkolari ona da 21 urte bertzerik ezitu ta hobere- nen artean dugu, Iruñen suerte txarra izan zuen, onbor gaixtuenak eta zallenak hareri tokatu baizitzaizkion. Zeberio ere ongi, lehenbiziko enborrean aintzinean zoaien bainan gero gibelasko gelditu zen, ala ere bere lana gustagarria izanduzen.

Espainiako aizkolarien Xapelgoa yokatu da eta eskualdunen indarrik eta ahalmenak erresuma guzian ezagutu dituzte.

Mariano IZETA

KONTU BAT

RUSIAKO ARTZAK

Katiuska neskatxo gaztetxo bat zan, rusiako mendí zabal aietan bere gurasekin borda txiki batean bizitzen zana. Elur eta otx asko egiten du mendi aietan.

Borda txiki auek zurekin egiten dute eta etxegaña aotza eta ongarririk estaltzen dute neguan bero geiago izateko. Borda okei rusian, ISBA deitzen diote.

Katiuskaren aitatxok «trineo» eta zaldi eder bat zuen etxera egurre edo beste edozein gauz ekartzeko. Bai eta ere errira, urruti zan ta, joateko.

Etxean zuten txakur txuri aundi bat Katiuskak asko maite zuena eta beti alkarrekin zebiltzen jostaketan.

Egun batean aitatxok esan zion Katiuskari. Gaur errira joan bear degu. Banijoa trineoa eta zaldia apaintzera. Belaxen Katiuska soñeko berria jantzi ta bere txakur txuri alderdian joan zen bere aitatxoren ondora, esanez, «¡Aitatxo, Dik eta biok, (Dik zan Txakurraren izena) abiatu gera, joan gaiten nai duzunean!». «Goazen ba», dio aitatxok. Aitatxo eta Katiuska jarririk trineoan, eta txakurraren alai aukakin asten dute errirako bidea.

Uste gabe erriian denbora geiegui igaro zuten eta itzulzeko ordua egin zan gaua erortzen zanean. Otx aundia egiten zuen eta elurtzen asi zan. Katiuska bere gorputza eta burua manta lodi batzuekin ingurutu zan, eta zulo txiki bat utzi zuen arpegi aurrean bidea ikusteko. Zaldia galopian asi zan eta bere lepoko yoale txiki batzuen soñua ederki aitzen ziran Txakurra erri aldera etortzean bezela trineoaren alderdian zijoan laisterka Katiuskari eta aitatxori zaintzen bezela.

Katiuskak aitu zituen mendi aietako artzaren kontuak eta bildur aundi bat sartu zitzaion. Itz egin gabe zijoan aitatxo eta Katiuska eta gau illun illune jarri zan. Zaldiaren yoleak bakarrik aitzen ziran.

Bide alderditan sasi aundiak ziran eta Katiuska, ezkerrean eta eskuñera, begira zijoan, bere leio txikitik, artza on bat ustez ikusiko zuen.

Aldi batean sasi artean otsa bat aitzen du eta esaten dio bere aitatxori. «Aitatxo, ¿ez duzu entzun otsa bat sasien artean?». Aitatxok, bildurra kentzeko Katiuskari, esaten dio. «Ez da ezer ere, ori aizeak egiten du». Gerexoago berriz Katiuskak begi batzuek dirdiraka ikusten ditu sasiaren artean eta dio aitatxori. «Begira aitatxo, sasien artean bi argi bezela ikusten ditut, artzaren begiak dira noski». «Ez Katiuska maitea ez, ez da ezer ere. Izarren dirdirak dira oiek».

Bildurturik Katiuska besarkatzen dio bere aitatxori. Dik txakurra auka luze asi zan egiten, artza urbil zegoela oartzeko.

Bat batean artza sasien artetik saltu aundi batean jartzen da trineoaren gañean eta Katiuskari manta puska aundi bat kentzen dio. Orduan Dik, beste salto batean jartzen da artzaren gañean bere lepotik oskatzen eta artza txakurrekin erortzen dira burrukan lurrera. Zaldia laisterrago asten da eta urrutitzen dira toki artatik eta Katiuska ta bere aitatxo iristen dira bere bordatxora sendo eta osasun onakin.

Katiuska ats piskoat artu zuenean, jarri zan bordatxoren atean zur baten gañian bere Txakur Txuri maitearen zai, baño Dik etzen etortzen. Orregatik larri zegoen Katiuska gaixua. Orduen aitatxok artu zion bere magalean eta alaitu naiez bere Katiuska maiteari esaten dio: Katiuska, «Dik ez da etorriko geiago etxera. Berari zor diogu biok gure bizitza».

Eta olaxen amaitu da kontu au.

LERIDATIK, ULTZAMAR BATEK